

# 9. Bilboko gizartea

## Erdi Aroan


Estadistiken aurreko garaian herri jakin bateko biztanleria aztertzea lan zaila izan ohi da beti. Baina beharrezko lana ere bada. Diego Lopez de Harok hiria fundatu zuenetik XVI. mende-hasierara bitartean, arrantzale eta olagizonen herri txikia izatetik lehen mailako merkataritza- eta industria-hiri izatera igaro zen Bilbo. Hiriaren hazkunde ekonomikoa bilbotarren lan etengabeari esker etorri zen, eta hazkunde horrek, aldi berean, indar handiz erakarri zituen inguruko biztanleak, eta zenbait kasutan, baita urruti samarrekoak ere. Garai horretako Bilboko biztanleen jatorria kontuan hartu gabe, beharrezkoa da Erdi Aroan Bilboko muina osatzen zuen biztanleriaren azterketa kuantitatiboa egitea, Bilboko gizarteari buruzko beste hainbat alderdi aztertzeko oinarri gisa.

### 9.1. Biztanleria

1492. urtea baino lehenagoko Bilboko biztanleria kalkulatzea oso lan zaila da, ez baitago hiriko biztanleei buruzko informazio zuzenik. 1492koak dira eskura ditugun lehenengo datu zuzenak, eta datu horiek garai hartako biztanleria osatzen zuten lagunak aipatzen ez dituen arren, gutxienez garai hartan zeuden sutegiei buruzko informazioa ematen digute<sup>1</sup>. Martxoaren 16an, Errege-erregina Katolikoek gutuna bidali zioten Bizkaiko korrejidoreari Valladolideko Medina del Campo hiritik. Gutun horretan, batzordea osatzeko agintzen zioten korrejidoreari, herri bakoitzeko sutegikopurua zehaztu zezan, jaurerrian zeuden desberdintasun fiskalak kentzeko helburuarekin. 1492ko zenbaketa horren arabera,

Bilboko harresiaren barruan 744 sutegi zeuden. Horiei errebaletako beste 195 eransten bazaizkie, guztira 939 sutegiko kopurua lortzen da. Hiri-barruko sutegiak honela zeuden banatuta: Goienkalen: 158; Artekalen: 119; Dendarikalen: 121; Belostikalen: 67; Harategia kalean: 111; Barrenkalen: 84; eta Barrenkale Barrenan: 84. Errebaletan, berriz, beste banaketa hau zegoen: San Nikolasen eta Areatzan: 78; Bilbo Zaharrian: 107; eta Ibenin eta Zabalan: 10. Inguruko elizate guztietatik Bilboren eskumeneko 17 bakarrik daude jasota, denak Abandoakoak.

1492ko zenbaketa baino pixka bat geroago, hain zuzen ere 1511n, sutegien beste zenbaketa bat egin zuten, eta 1514an berrikusi zen. Zenbaketak ondorengo emaitza hau izan zuen Zazpi Kaleetan: Goienkalen: 159; Artekalen: 119; Dendarikalen: 122; Belostikalen: 75; Harategia kalean: 144; Barrenkalen: 76; eta Barrenkale Barrenan: 80. Ikusten denez, 1492ko 744 sutegietatik 775era igaro ziren. Hazkunde kaskarra izan zen, beraz. Baina errebaletako datuei erreparatzen badiegu, egoera zeharo aldatzen da. 1514an horrela zeuden banatuta errebaletako sutegiak: San Nikolasen eta Areatzan: 145; Allende la Puente: 121; eta Ibenin eta Zabalan: 14. 1492an errebaletan zeuden 195 sutegiak 1514an 280 ziren. Horrez gain, inguruko elizateetan Bilboren jurisdikzioko etxeak zeuden: 41 Begoñan eta 44 Abandon, Uribarriko Artigabiden 23 eta Galdakao, Bediako San Joan, Zaratamo eta Arrigorriagan nekazarien 82, 43, 35 eta 29 etxe, hurrenez hurren. Bilboren jurisdikziopeko etxeak, Artigabidekoak eta nekazarien etxeak alde batera utzita ere, sute-



1492KO SUTEGIEN ZENBAKETA


giak asko ugaldtu ziren 1492tik 1514ra bitartean: hain zuzen ere, 116 Zazpi Kaleen eta errebalen artean.

1492 eta 1514. urteen arteko desberdintasunak hiriak Erdi Aroaren amaieran zuen egoeraren isla zehatza dira. Bilboko merkataritza- eta industria-jarduera biziaren ondoriozko hazkunde ekonomikoak inguruko jende asko erakartzen zuen, baina hiriguneak ezin zuen biztanle-kopuru hori bere baitan hartu. Horregatik, hiriko hazkunde ekonomikoan parte hartzeko asmoz iristen ziren lagunak errebaletan bizitzearekin konformatu behar izaten zuten. Hori izan zen bi zenbaketen artean izandako sutegei-hazkundearen ia hiru laurdenen arrazoia. Errebalen artean ere alde nabarmena zegoen San Nikolas-Areatzakoaren eta Ibeni eta Bilbo Zaharrekoen artean. Lehenengo errebalak ia bikoiztu egin zituen sutegeiak 1492tik 1514ra bitartean, eta beste biek, aldiz, ez zuten ia hazkunderik izan. Izan ere, Bilboko udalak hiri-espazioa handitzeko asmoz zabaltze-politikari ekin zionean, lehenengo eremu horretan gauzatu zuen.

Behin sutegei-kopurua jakin ondoren, sutegei bakoitzeko lagun-kopurua kalkulatu

behar da, kontuan hartuz kalkulu horretan pixka bat desbideratzeak nabarmen aldaraz dezakeela biztanleen azken zifra. Kleriko, alargun eta emakume ezkongabeei zegoen sutegeiak asko zirela eta haietako bakoitzean pertsona bat edo bi bakarrik bizi zirela kontuan hartuz, sutegei bakoitzeko 3,5 eta 4 pertsona bitarteko batezbestekoa erabiltzen badugu, hiriko harresi barruko eta errebaletako biztanle-kopurua 3.500 eta 4.000 bitartekoa izango zen XV eta XVI. mendeetan, eta 400 edo 500 bat biztanletan gehituko zen lehenengo zenbaketatik bigarrenera bitartean<sup>2</sup>. Bestalde, 4,5 edo 5 pertsonako batezbestekoa erabiliko bagenu, kopurua 4.500 edo 5.000 lagunera iritsiko litzateke.

Garcia de Cortazarrek batezbesteko hori erabili zuen XVI. mende-amaierako Bilboko biztanleria 5.700 bat lagunetan kokatzeko. Kopuru horretan kontuan hartu zituen Begoña eta Abando elizateetako eta Uribarriko Artigabideko Bilboren jurisdikziopeko biztanleak ere.



1514KO SUTEGIEN ZENBAKETA

Batezbesteko bata edo bestea gorabehera, kontua da hiriko sutegiak asko ugaltu zirela harresien barruan eta, batez ere, kanpoan. Horrek agerian jartzen ditu Bilbok bere antzinako eremuan hazten jarraitzeko zituen eragozpenak. Barrutiko elizateetan sutegiak ugaltzea Bilboko merkataria eta nabigatzaileak aberastearen eta euren negozioetan irabazitako dirua hango lurretan inbertitzearen isla ere bada<sup>3</sup>.

## 9.2. Biztanleriaren jatorria eta gizarte-egitura

Bilboko biztanleria frankoa eta libre zen, eta jurisdikzio propioa zuen bere hirigutunari esker. Ezaugarri horiek eta merkataritza- eta industria-jarduerari lehentasuna emateak bestelako bizimodua eman zioten Bilboko biztanleriari, baserriko jardueretan ziharduten inguruko landa-barrutietakoekin alderatuz. Baina Bilbo hiriaren barruan jatorri- eta egoera-desberdintasun handiak zeuden, eta arreta zehatzagoa merezi dute.

Bizkaiko hiribildurik gehienetan, hirigitura aurretik zegoen landa-herriaren gainean ezarri zen, eta kasu horietan, nekazariak izaten ziren hiri berriaren muina. Bilboren kasuan, berriz, fundatu aurretik nekazaritzan ziharduen biztanle-kopurua kontuan hartzekoa izango zen arren, aipagarria da burdina erauzteko zereginetan eta arrantzan jarduten zuten biztanleen presentzia ere. Hori dela eta, hasiera-hasieratik, Bilboko biztanleriaren jatorria berezia izan zen Bizkaiko beste hiribildu batzuetakoen aurrean. Erdi Aroan nekazari asko joan ziren Bilbora, gizaki libre bihurtzeko asmoz edo euren biziraupenerako baliabide bila. Dena den, hirian baziren beste hiritarren askatasuna ez zuten nekazariak ere. Horien artean, Jaunak hiriari utzitako nekazari zentsuarioak zeuden. Beren egoera ez zen aldatzen Bilboren jurisdikziopean sartu arren.


Nekazarien ondoren, bigarren biztanle-multzorik ugariena aitoren semeena zen. Aitoren semeak batik bat XIV. mendearen amaieratik hasi ziren hiribilduetara etortzen. Bilboren garapena erakargarria izan zen jende horrentzat, batez ere diru gutxiko familietako bigarrenentzat. Lehen ere aipatu dugu, hiritar bihurtzean aitoren semeek galdu egiten zutela pribilegio-estatutua. Dena den, hainbat aitoren semeek egoerari eustea lortu zuten, Bilboko hiritar izan arren. Esate baterako, 1485ean, Martin Ochoa de Larrea hiritarrari errespetatu egin zioten Errege-erregina Katolikoek bere egoera pribilegiatua<sup>4</sup>.

Leinu handiek eta Ahaide Nagusiek ere hiribildura jo zuten, bertan garatzen ziren irabazi handiko jardueretan parte hartzeko. Hori egin zuten, esate baterako, Bilboko merkataria-familia bateko ahaideak ziren Leguizamondarrek. Alderantzizko fenomeno ere gertatu zen Bilbon, hau da, hiriaren barruan leinu berria sortzea; hori dugu Arbolanchatarren kasua, Bilboko hierarkiaren gailurrera iristea lortu zutena.

Azkenik, atzerritar eta juduei buruzko aipamena egin behar da. Juduek merkataritzan ziharduten gehien bat, eta hirian sortutako dinamismoak erakarri zituen. Hasieran inork ez zion eragozpenik jarri haiek hirian sartzeari, baina XV. mendetik aurrera, neurri murriztaile ugari egon ziren. 1463an, Bilbok baldintzak jarri zituen bertako hiritar bihurtu nahi zutenentzat: odolez eta jatorriz garbiak izatea, bi hiritarren abala lortzea eta gutxienez hamar urterako bizimodua ziurtatzen zuten ondasunak aurkeztea, besteak beste<sup>5</sup>. Neurri horien xedea zen urte haietan hiriak bizi zuen etengabeko hazkuntza kontrolatzea, eta horretarako, hiriko komunitatean sartzen zen jendea aukeratzea.

Aipatutako jende-multzoetatik Lurralde Irekiko biztanleak izan ziren Bilbo hiria gehien jendeztatu zutenak. Hiriko bizimo-

duak eskaintzen zituen pribilegioek bultzatu zituzten, batik bat, Bilboko hiritar bihurtzera. Pribilegio horien artean hauexek zeuden: zerga-hobariak, zenbait ordainketa ez egin behar izatea eta autogobernua. Autogobernuaren bitartez, hiritarrak jauntxo gehiegikerietatik babesten ziren. Bestalde, Bizkaiko jaunaren menpeko izatea arrazoi arinegia zen aitoren semei hiritar bihurtzea eragozteko. Zituzten abantailen truke, hiritarrek zergak ordaindu behar zituzten eta arma-zerbitzua eskaini, baina horrek ere ez zuen eragotzi Lurralde Irekiko biztanleak hirira etortzea. Behin hiritar bihurtuz gero printzi-



pioz denek abantaila berberak zituzten arren, egia esan, desberdintasun nabarmenak sortu ziren gizartean, batik bat hiriko jarduera ekonomikoek oso diru-sarrera desberdinak eragiten zituztelako: batzuek dirutza ikaragarriak pilatzen zituzten eta beste batzuk pobreziarik handiena bizi zuten. Mailarik gorenean armadoreak eta merkatari handiak kokatu ziren; haien azpian, berriz, «klase herrikoien» oso multzo zabala zegoen.

Klase herrikoi horiei ozta-ozta bizirik irauteko baliabideak eskaintzen zizkien hiribilduko bizimoduak. Baina oraindik beherago pobreak eta marjinatuak zeuden. Dena den, gizarte-talde horien aberastasunen azterketa egitea baino interesgarriago

da lagun batzuek pilatutako aberastasuna eta boterea aztertzea. Bi parametro horien arabera, neurri batean aurrekoekin bat datozen gizarte-multzoen egituraketa egin daiteke.

Hiribilduko eskala sozialaren goienean leinu eta kofradietako kideak ageri dira. Lehenengoek egoera ekonomiko arrakastatsua duen botere-multzoa osatzen dute, eta hiriko gobernuan parte hartzen dutenez, gainerako hiritarren gaineratik daude. XV. mendean, Arbolancha, Zurbaran, Bilbao La Vieja eta Zamudio abizeneko per-

sonaiak azaldu ziren Bilboko agintarien artean, eta denak hiriko

BILBOKO ERDI AROKO BIZTANLEEN JATORRIA

leinueta-ko kideak ziren. 1435. urtean, hiria bake-tzeko kapitulua sinatu behar zela eta, hogeita lau gizon zintzok zin egin behar zutela erabaki zuten: horietatik zortzi Leguizamon leinukoak ziren eta beste zortzi Zurbaran leinukoak<sup>6</sup>. Hiriko aginteposiziotik, leinuek euren mesedetan erabiltzen zituzten pribilegio guztiak, eta arrazoi horregatik, botere-zati horretaz jabetu nahi zuten beste hainbat leinuren aurka borrokatzen ziren. Udal-karguek sortzen zituzten diru-sarreraren kontrola eta, batik bat, agintean egotearen ondoriozko ospea izan ziren hiri barruan gauzatutako bandoen arteko gatazken arrazoi nagusia, eta lehen aipatutako bi leinuen inguruan polarizatu ziren. Bi leinu horiek lortutako botereak ere

istiluak eragin zituen gainerako hiritarren artean, ezeroso sentitzen baitziren haien monopolio instituzionalaren aurrean. Horrela, Koroak Bilboko hiritarren alde egin zuen, udal-karguak Leguizamondarren eta Zurbarandarren etengabeko presiorik gabe aukeratu ahal zituzten.

Hirietako bigarren botere-multzoa, leinuena bezain garrantzitsua ez zena, kofradiak osatzen zuten. Leinuen kasuan bezala, hiritarrek ez zituzten kofradiak onartzen, gehiegizko boterea zuten eta. Izan ere, kofradiak lagun ugariz osatuta zeuden arren, euren kide aipagarrienen monopolizatzen zuten botere guztia, maisuek hain zuzen ere. Kofradiak euren babes-printzipioak ezarri nahi izan zituzten, eta horixe izan zen hiritar arruntekin eta leinuekin izandako liskarren arrazoirik ohikoena. Hor dugu 1497an Tristan de Leguizamon probestuaren eta merkatarikofradiaren artean sortutako gatazka. Probestuaren argudioen arabera, kofradia ez zegoen bere kontrolpean, eta horrek kalte egiten zien bere diru-sarrerei<sup>7</sup>. Dena den, norbanako ahaltsu askok kargu garrantzitsuak zituzten kofradietan, eta aldi berean, leinu handietako kideak ziren.

Leinu eta kofradiak osatutako hiriko oligarkia horren azpian gainerako hiritarrek zeuden, baina horien artean ere bereizketak egin behar dira. Lehen multzoan maila ekonomiko ertaineko lagunak zeuden (eskribauak, tailerretako ofizialak, kofradietako beste kide batzuk, fisikariak, maisuak, merkatarik txikiak, bizarginak, okinak, etab.); horien ondoren, soldatapeko langileak, diru gutxiak eta hirian ia botere politikorik ez zutenak; eta horien parean, nekazaritzan ziharduten biztanleak, soldatapekoak nahiz hirian bizi ziren lur-jabeak.

Leinu eta kofradien azpian kokatutako multzo handi horren ondoren, marjinatuak zeuden. Multzo heterogeneo horretan, pobreak, atzerritarrak eta juduak sartzen

ziren. Pobrean artean beste bi multzo bereizten ziren: batetik, eskaleak, hiri batetik bestera ibiltzen ziren eta Bilbon gaizki ikusita zeuden –debekatuta zuten alkatearen baimenik gabe hirian egun bat baino gehiago igarotzea<sup>8</sup>; eta bestetik, pobre sedentarioak, hiriak kontrolatu bai, baina babestu ere egiten zituenak.

Atzerritarrak arbuiatu eta diskriminatu egiten zituen Bilbo hiriak, bertako ordenantza batek erakusten duenez: atzerritarrek debekatuta zuten edozein lanbide praktikatzeari, erregidorearen baimenik ez bazuten eta hirian geratzeko nolabaiteko bermea eskaintzen ez bazuten<sup>9</sup>.

Hiri barruko azken multzo marjinatua beste etnia eta erlijioetako kideena izan zen, eta batez ere juduena. Hiriak garatu zuen merkataritza-jarduera handiak erakarriz zituen juduak Bilbora. Balmasedan aljama (juduen tenplu) handi bat izatera heldu ziren, baina Bilbon, denbora jakin batez bakarrik egon zitezkeen, bertan gaua igarotzeko 1490eko debekuak jasotzen duenez: *“no sean osados (los judíos) de aposentarse en ninguna casa dentro del cuerpo de la villa, sino en el arrabal que está de aquel cabo de la puente donde, si necesario fuere, les harán dar posadas el tiempo que aquí estuvieren”*<sup>10</sup>. Merkataritza aparte, juduek beste lanbide batzuk ere praktikatu zituzten, medikuntza kasu. Esate baterako, Bilboko kartzelan zegoen bitartean, bere jakinduriaz baliatu nahi zuten gaixo guztiak atenditzen zituen Samuel juduak, harik eta debekatu zioten arte<sup>11</sup>.

Bilbotarrek begi txarrez ikusi zuten beti juduen jardueraren, eta euren lurretan fedegabeei finkatzen ez uzteko jaurerriko pribilegioan oinarrituz, ahal zituzten eragozpen guztiak jarri zizkieten. Fedegabe horien artean, baimen berezia zuten medikuak ez beste musulman eta judu guztiak sartzen ziren. Horrenbestekoa izan zen bilbotarrek juduen taldeari egindako presioa, non, 1475 eta 1490 bitartean, hiriaren gehiegikeriak

jasan zituzten Medina de Pomarreko merkataria juduen kexak onartzea eta euren jarduerari babesa ematea erabaki zuen Koroak<sup>12</sup>.

### 9.3. Bilboko gizartearen politika-antolamendua

Erdi Aroan, Bizkaia bi izate juridiko oso desberdinetan banatuta geratu zen: alde batetik Lurralde Irekia zegoen eta bestetik hiriak. Hirietako biztanleria auzotasun-estatutuak berdintzen zuen, eta egitura politiko egokiz hornitu behar izan zuen bere burua, elkarbizitza ahalbidetzeko eta bere egoera pribilegiatuak eskaintzen zizkion baldintza onak ahalik eta gehien gartzeko. Hasiera batean oso xumeak ziren antolamendurako politika-ereduetatik abiatuz, hiribilduek oso antolakuntza konplexuak izan zituzten azkenean. Bilakaera luze horretan, bost prozesu nagusi izan ziren bai Bilbon bai Bizkaiko gainerako hiribilduetan<sup>13</sup>.

Prozesu horietan aurrena, hiribilduetako agente partikularrak jaurerriko orokorretatik pixkanaka-pixkanaka banantzea izan zen. Merio eta prestameroek Bizkaiko Jaunaren ordezkari gisa zituzten eginkizunak indarra galduz joan ziren hiribilduetan, XIV. mendean zehar –lehenengo probestuak hartu zuen nagusitasuna, eta korrejidoreak gero–; ondorioz, horien jarduera-esparrua Lurralde Irekira mugatu zen.

Bigarren fenomeno aipagarria honako hau izan zen: udal-funtzionarioek autonomia irabazi zutela Jaunaren aurrean. Bi printzipio hartu zituzten horretarako oinarri: batetik, Jaunak funtzionarioak hiriko biztanleen artean aukeratu behar zituela, eta bestetik, hiritarrek euren agintariak aukeratzeko ahalmena zutela. Lehen xedapena 1095eko Logroñoko Foruan ageri zen jada, eta bigarrena, 1181eko Gasteizkoan jasota zegoen. Bilbo hiria bere udal-aginta-

riak aukeratzeko ahalmenarekin sortu zen, hiri-gutuneko testuak adierazten duenez: *“Et que ayades vuestros alcalde et jurados et prevoste et escrivanos publicos et sayon vuestros vecinos et no otro ninguno...”*. Probestua izendatzeko ahalmena beti Jaunak izan zuen arren, egia esan, bilbotarren hautapen-ahalmena nabarmen areagotu zen XIV eta XV. mendeetan.

XIV. mendearen bigarren erdian areagotu egin zen aditu juridikoen presentzia, eta horixe izan zen Bizkaiko hiribilduetan politika-antolamendua finkatzeko hirugarren prozesua.

Zuzenbide erromatarra penintsulan sartu eta praktikan jartzea lan neketsua izan zen. Zeregin hori, erromatartzeko joera horretan prestatutako juristek garatu zuten, errege-erreginen babespean garatu ere, interesa baitzuten euren boterearen pribilegioak areagotzeko. Lehen aipaturiko Bilboko hiri-gutunaren zatia, hiriko agintarien artean “eskribau publikoak” egon beharra aipatzen duena, Bizkaiko jaunak hiri horretan aditu juridikoen presentzia areagotzeko zuen interesaren eredu garbia da. Dena den, Joan Trastamarakoa infantea, 1370etik Bizkaiko Jauna izan zena, dugu Bizkaiko hiribilduetan letratuak izatearen alde lan gehien egin zuena, Ugao, Mungia, Larrabetzu eta Errigoitiko fundazio-gutunetan ikusten denez.

Bizkaiko hirietako biztanleria hazi izanak, hiriko oligarkiak nagusitu izanak eta beste hainbat zirkunstantziak eragin zuten laugarren prozesua: udal irekitik udal itxi edo erregimentura igarotzea. Biztanleria ugaltzean, hiritar guztiak asanbladara deitzea oso lan zaila zen, eta horregatik, auzotarrek agintarien esku utzi zituzten gai politikoak. Dena den, teoriarik behintzat ez zioten uko egin agintariak izendatzeko eta horiei kontuak eskatzeko eskubideari eta, bereziki, hiriko bizimoduaren funtzionamendu-arauak proposatzeko ahalmenari.



**BILBOKO ALDE ZAHARRA AIRETIK IKUSITA**  
País Vasco, desde el cielo lanetik hartua. Argazkia: FOAT

Bilbo hiriko udal-funtzionarioen multzoa aldatuz joan zen Erdi Aroan zehar. Funtzionarioetan antzinakoena merioa zen, XIV. mendean geroztik Bizkaiko hiribilduetan beharakada nabarmena izan zuen irudia. Probestuak botere pixka bat gehiago izan zuen. Probestua jaunena eta justiziaren ordezkaria zen, Lurralde Irekiko merioaren eta prestameroaren parekoa. Alkateak, bestalde, lehen instantziako epaileak ziren, eta euren epaiak beste alkate batzuei helegiteko aukera zegoen. Ugao hiribilduak Bilboko alkateei helegiteko aukera zuen, eta Bilboko biztanleek Bermeokoei. Epaile-lanekin batera, alkateek udaltzain-lanak ere egin zituzten, norbanakoen eta jabegoen segurtasuna babesteko; lan horretan fielek laguntzen zieten. Azken horiek, pixkanaka-pixkanaka, hasiera batean alkateei zegoen beste zeregin batzuk bereganatu zituzten, esate baterako, hiribilduak hornitzeare-

na, produktuen prezioak ezartzearena, merkatuak zehaztearena, etab. Hiribilduetako agintarien artean, baziren garrantzi txikiagoko beste kargu batzuk ere, hala nola, borrarero, aguazil eta zinpekoenak.

Bilboko erregimentuak 1435ean hainbat aldaketa jasan zituen, bandoen arteko gerrak hiriko bizimodu publikoan sortzen zuen eragin negatiboa saihesteko. Urte horretako kapituluak jatorrizko bi alkateen ordez bakarra jarri zuen, hirian zeuden alderdien arteko gatazkak ekiditearren. Alkateari bi fielek, zortzi korrejidorek, ganberako bi eskribauk eta ganberako sei zinpekok laguntzen zioten; kargu horiek aurretik zeudenek aukeratzen zituzten, euren familiakoak ez izateko baldintzarekin. Gainera, urte horretan bertan, xedepanak betetzen zirela zaintzeaz arduratuko ziren hiriko hogeita lau gizon izendatzea erabaki zen. Gizon horiek hiriko leinurik


garrantzitsuenetako kideen artean aukeratu behar ziren. Azken xedapen horrekin, urte hartatik aurrera udal-agintaritzatik bandoak erretiratzeko erabakia konpentsatzen zen nolabait. Probestua, aurreko karguak ez bezala, Jaunak aukeratzen zuen zuzenean.

Erregimentuko karguek zituzten zereginak ere aldatu egin ziren, kasu batzuetan, 1435etik aurrera. Alkateak, ordura arte izandako zeregin handiak izaten jarraitu zuen, baina jada bakarrik burutzen zituen. Probestuak justiziaren betearazle-zeregina hartu zuen, eta XV. mendean, merkataritzak eragindako zenbait diruren jasotzailea ere izan zen Jaunaren izenean –diru horien zati eder bat berak poltsikoratzen zuen zeregin horren truke–. Fielen lana ekonomikoak zen batik bat: biztanleria hornitzeko behar ziren produktuen prezioa finkatzea eta horien kalitatea egiaztatzea, neurri handian. Zeregin judizialak ere bete zituzten, baina dezente gutxiago. Bilboko erregimentuko bi fielen artean, hiriko dirukontuez arduratuko zen diruzaina aukeratzen zen urtero. Erregidoreek, bestalde, komunitateko bizimodua ikuskatu behar izaten zuten, eta justiziaren, merkataritzaren eta udaltzaingoaren arloko gaiez arduratzen ziren. Eginarazi zitzaizen beste lan bat aldiro-aldiro ospitaleko pobreei bisita egin eta euren beharrak asetzeko igandetan dirua eskatzea izan zen, lehen ere aipatu dugunez.

Agirietan gutxiago agertzen diren letratuak eta prokuradoreak gain, udal-batzordean bi eskribau ere baziren. Bi eskribauak udal-batzarren aktak jasotzeaz arduratzen ziren funtsean. XV. mendearen amaieran, horien kopurua handitu egin behar izan zen, ekonomia- eta demografia-arloetan hain garatuta zegoen hiri honen beharrei erantzun ahal izateko.

1483ko Chinchillaren kapitulatuko xedapenak hiriko ordenantza bihurtu ziren eta berritasun gisa, bi taldetan banatutako hogeita bost diputatu aukeratzea zegoen. Lehenengo taldea zazpi diputatuk osatzen zuten, Zazpi Kaleetako bakoitzeko bat. Diputatu horiek erregidoreen gai berberetz arduratzen ziren. Bigarren taldea hemezortzi diputatuk osatzen zuten eta alkateari bere zeregin judizialetan laguntzeko zeregina zuten.

Hiriko hazkuntza demografikoa zela eta, kabildo irekia deitzea ezinezkoa zela



**BILBOKO ANTOLAMENDU POLITIKOAK ERDI AROAN BIZI IZANDAKO PROZESU NAGUSIAK**



nabarmena egin zenean, hasiera batean behar zena baino leku txikiagoetan hasi zen biltzen erregimentua. Guiard-en arabera, erregimentuaren bilerak hainbat tokitan egiten ziren, kanpaiak joz eta pregoilariak biztanle guztiak deitu ondoren. Besteak beste, Santiago elizan (tenplu barruan edo arkupean), talaian, edozein dorretxetako tauletan, plazaren erdian edo udalaren jabegoko etxe batean edo bilera egiteko alokatutakoren batean egiten zituzten. Toledoko Gorteen 1480ko xedapen batek udala etxe propio bat izatera behartzen zuen arren, Bilbok ez zuen agindu hori bete 1535 arte. Urte horretan hasi ziren udal-etxea eraikitzeko lanak San Anton elizaren ondoan eta hiriko Plaza Nagusiari aurre emanaz<sup>14</sup>. 1553an uholde batek eraitsi egin zuen eraikina eta lehengoaren hondakinen gainean beste etxe bat eraikitzeari ekin zioten. 1567an amaitu zuten. 1593an berriz ere gainezka egindako urak udal-etxea eraitsi zuen eta erregimentuak berriz ere norbanakoen edo elizaren lokaletara jo behar izan zuen bilerak egiteko<sup>15</sup>. Udalbatzaren bileretarako eraikin propioa izateko interesa leku irekietan jendeak behin eta berriz muturra sartzen zuelako zen, izan ere, jendea samaldan sartzen zen udalbatzakoei erabaki bat hartzea galarazteko edo beste erabakiren bat hartzera behartzeko. 1435eko Bilboko ordenantzak ere bandoe-tako eta kofradietako kideen presioak saihesteko egin zituzten. 1483an Isabel erreginak debekatu egin zien Santa Maria, Santiago, San Agustin, San Nikolas, San Migel eta San Sebastianen kofradietako kideei *“que entendiesen en el regimiento de la dicha villa... salvo en el servicio de Dios, enterrar a los muertos...”* eta baita erruki eta gupidazko beste hainbat ekintza egitea ere<sup>16</sup>. Chinchilla abokatuaren urte horretako xedapenen ondoren, alkatea, probestua, fielak, erregidoreak, udaleko eskribauak, udaleko abokatua eta zazpi diputatu bakarrik bildu zitezkeen udal-etxean<sup>17</sup>. Ikusten


denez, udalaren erabakiak behartzeko ahalginek etengabeko gatazkak sortu zituzten Erdi Aroko Bilbon.

Azkenik, Erdi Aroan Bilbo hiria egituratzen lagundu zuen azken prozesua udalaren gestioa monopolizatu zuen udal-agintari taldea gauzatzea izan zen. Fenomeno hori jaurerriko hiri gehienetan gertatu zen arren, beharbada Bilbokoa izan zen kasurik aipagarriena. 1477 eta 1503 bitartean hirian osatutako hogeita hiru erregimentuen artean, probestu, probestutiente eta eskribauak aparte utzita, 270 izen ageri dira eta horietatik 69 zazpi familiatakoak. Beste 13 familietatik 56 kide atara ziren. Datu horiek argi eta garbi adierazten dute Bilboko familia gutxi horien artean kontrolatu zituztela berez hautapenezkoak ziren karguak XV. mendearen azken laurdenean. Familia horien artean Legizamon, Arbolantxa, Zumelzo, Markina, Uriondo, Arriaga, Vitoria, Ibañez de Bilbao, eta abar zeuden, gehienak merkataritza-jarduerekin eta ontzigintzarekin zerikusia zutenak.

#### 9.4. Hiriko agintea erabiltzeko esparrua


Bilbo hiria jaurerri kolektibo gisa portatu zen Erdi Aroan eta jaurerri kolektibo horretan, erregimentuak Bizkaiko Jaunen ordezkari-lana betetzen zuen eman zitzaion barrutian. Bere mugen barruan, Bilbo oso alderdi desberdinez arduratu zen: udaltzaingoaz (kale-garbiketa, sute-prebentzioa, hiriko segurtasuna, pobreei arreta egitea, eta abar), erregimentuko ofizialen eskumenak arautzeaz, hiritartasunaren estatutuaz, Bizkaiko Jaunari zerbitzu egokia eskaintzeaz (soldaduska, sutegiak helburu fiskalekin zenbatzea, zerga bereziak ordaintzea, justizia betetzea), eta bereziki, jarduera ekonomikoa kontrolatzeaz<sup>18</sup>.

Bakoitzak propiotzat jotzen zuen aginte-esparrua arautzen ahalegintzen zirelako



1535era arte, Bilbo hiribilduan ez zegoen Udalarentzako eraikinik. Beraz, bilerak Santiago elizan egiten zituzten, gehienetan atarian. Urte hartan hasi ziren Udaletxea eraikitzen San Anton elizaren ondoan. XIX. mendearen bukaeran agustindarren komentua bota zutenean, berriz, bertan eraiki zuten gaur egungo Udaletxea.

1



SANTIAGO ELIZAKO ATARIA

2



UDALETXEA, SAN ANTON ELIZAREN ONDOAN

3



GAUR EGUNGO BILBOKO UDALETXEA

sortu zen Bilboren eta inguruko elizateen arteko gatazka eta ez zen garai hartan jaurerriko bakarra izan. Hain zuzen ere, Bizkaiko hiri asko eta askok gatazka serioak izan zituzten euren udal-barrutiek. Hala ere, hiri guztien artean, Bilbok jasan zituen gatazkarik gogorrenak jaurerriko hiri garrantzitsuena izatearekin bat etorritik. Gainera, Abando, Begoña eta Deustuko elizateek ere indar handia zutela kontuan hartzen badugu, errazago ulertzen da zein gogorra izango zen gatazka, batez ere XV. mendean geroztik.

Bilbo hiriak beretzat gorde zuen bere barrutiko elizateetara jurisdizkio-bisita zibil eta kriminalak egiteko aukera, eta bidegurutze eta mugarrietatik aurrera Foruko alkateekin partekatu zuen aginte hori. Elizateetara kontrol-bisita egiteaz gain, Bilboko erregimentuak beste hainbat ekintza burutzen zituen bere nagusitasuna nabarmentzeko ahaleaginean. Esate baterako, Lurralde Irekiko herritarrak hiriaren mende zeudela gogorarazteko, elizateetako fededunen aurreko eserleketan esertzen ziren elizan jaiegun garrantzitsuenetan. Etxe zergapekoetan eta Bilboren barruan auzotuetan amaitzen ziren bisitak. Deustuan horrelakorik ez zegoenez, bisita gutxiago egiten zituzten; Abandon, ordea, taberna, ostatu eta errota ugari bisitatzen zituzten<sup>19</sup>. Botere-erakustaldi horiek arbuiatu egiten zituzten elizateetan, izan ere, gehiegizkotzat eta oso ahaltsutzat jotzen zuten bilbotarren jarrera. Egia esan, Bizkaiko antolamendu juridikoa bera zen hirien eta Lurralde Irekiaren artean gatazkak sortzeko bidea, bere zehaztasun-ezagatik. Hiri-gutunek lehenengoei euren barrutietan saldu eta birsaltzeko monopolioa ematen zien bitartean, Foru Zaharrak libreki saltzeko eskubidea onartzen zien Lurralde Irekiko biztanleei. Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, auzi ugari sortu ziren hirien eta Lurralde Irekiaren artean

bakoitzaren jarduera-esparruak mugatzeko orduan.


1500eko epaiaren ondoren, mugatu egin zen Bilboren eskumeneko barrutia. Aurreantzean, harresien barruko lur-eremuak, errebaiek eta hirian auzotutako elizateetako biztanleen etxeek osatuko zuten Bilbo. Beraz, elizateek irabazi egin zioten Bilboko erregimentuari eta elizateen aurrean zuen jarrera ahaltsua gelditzea lortu zuten. Edozein modutan, barrutia murrizteak ez zuen ekarri Bilbok boteretik galtzea, izan ere, Bilbori zegozkion etxeetara bisitak egiten jarraitu zuten eta hiriaren ahalmen ekonomikoa hazi ahala horiek areagotzen ere joan ziren. Hiriak XV. mendean lortu zuen garapenaren ondoren, eskumeneko barrutia murriztea ez zen inolako eragozpena izan. Alderantziz gertatu zen: murrizketa horrek bere garapen historikoaren eragileak izan ziren jardueretan –industrian eta merkataritzan– are gehiago saiatzera bultzatu zituen bilbotarrak<sup>20</sup>. Lurrik gabeko hiria zen, baina hodeiertzean itsaso guztia zuena.

## 9.5. Bando-kideen borrokak Bilbon

Lehen esan dugu Bilboko biztanleek leinuetako kideei aurre egin zieten hiriko agintean ezarri nahi zuten monopolioaren aurrean. Baina, Bilboko biztanleen jarrera ez zen beti izan leinuen aurkakoa, izan ere, batzuetan, bando baten edo bestearen alde jarri ziren euren mesedetan. Horregatik, hiritarren ekimenez edo zirkunstantziek behartuta, Erdi Aroan Bizkaiko jaurerria hondatu zuten bandoen arteko borrokak jasan behar izan zituen Bilbo hiriak ere.

Erdi Aroko Bilbon Legizamon eta Zurbaran leinuen inguruan bildu ziren bi bando zeuden. Aldi berean, bi leinu horiek jaurerri osoan eragina zuten beste bi leinurekin zeuden elkartuta: oñaztarrekin eta ganboarrekin hain zuzen ere. XIV. mendean erditik

aurrera bi joeren arteko bereizketa nabaritu zen Bilbon, baina bereizketa hori ez zen zurruna, ezta gutxiagorik ere. Egiten ziren



BILBOKO KONTZEJUAK BERE BARRUTIAN ZITUEN ESKUMENAK

elkartasunak aldakorrak ziren eta leinu handietako kideek bakarrik jarraitzen zuten beti leinu batean. Mende horren amaieran, etengabeko liskar haietan ordena jartzen ahalegindu ziren bi bandoei hiriko agintean parte hartzeko aukera emanaz, baina erabakia ez zen batere eraginkorra izan. 1435ean egin zen lehenengo ahalegin serioa Bilboko bandoen arazoari aurre egiteko hainbat erabakiren bitartez: besteak beste, bakea ezarri zen leinu etsaien artean, bando bakoitzak bere alkatea izan beharrean alkate bakarra egotea erabaki zen, desafioak egitea eta bandokideak babestea debekatu zen eta Koroari laguntza eskatu zitzaion hiriko bandoekin amaitzeko. Baina erabaki horiek ere ez zuten konponbiderik ekarri, borrokek ohikoak izaten jarraitu baitzuten bai hiriaren barrualdean bai kanpoaldean.

Hala ere, hirian bakea lortu nahia ezinbestekoa zen Bilboren ahalmen ekonomi-

koa ahalik eta gehien garatu ahal izateko eta XV. mendearen erdi aldera, nahi hori lehen garaipenak lortzen hasi zen: Alonso de Mujika, Pedro de Avendaño, Juan de Salazar eta Fortun Garcia de Arteagari hirian sartzea debekatu zieten. Dena den, erabaki horiek ez ziren nahikoa izan hirian hain sustraituta zegoen gatazkarekin amaitzeko. Hala erakusten du 1478an Juan de Salazar Bilbon sartu eta hiritarren artean iskanbila handi hura sortu izanak<sup>21</sup>.

Beraz, hiria baketzea etengabeko lana izan zen Bilborentzat leinuen nagusikeriaren aurrean. Batzuetan, zenbait pertsona garrantzitsuk euren etxe gotorrak hiriaren barruan eraiki edo konpontzeko zuten asmoaren aurkakoak izan ziren baketzeko ahaleginak. Esate

baterako, Juan de Arbolanchak bere etxea konpondu eta dorretxe bihurtu nahi izan zuen, baina Bilboko udalak ez zion utzi eta 1492an Koroaren laguntza eskatu zuen bandokidearen asmoek aurrera egin ez zezaten<sup>22</sup>.

1483an Errege-erregina Katolikoek Chinchilla lizentziatua Bilbora bidali izana hiria baketzeko behin betiko pausoa izan zen. Chinchillaren kapitulatuak arrakasta handia izan zuen hasiera-hasieratik bandokideen arteko borrokekin amaitzeko helburuan. Hartutako beste erabaki batzuen artean, abizen, bando eta partzialtasunak debekatu ziren eta hiritarrek zin egin behar izan zuten ez zutela haietan parte hartuko. Bestalde, edozein bandotako kideei eta jaunen mendeko pertsoneri debekatu egin zieten zinegotzi kargua hartzea.

Errege-erregina Katolikoek atseginez onartu zituzten Chinchillak proposatutako

neurriak eta 1484an ontzat eman zuten haren Kapitulatua. Baina leinuak neurri haien kontra azaldu ziren eta gogor egin zuten gauzatu ez zitezten. Helburu batzuk lortu ziren arren, ez haiek eta ez geroago hartutako erabakiek ez zuten lortu gatazka erabat konpontzea. Bandoen arteko gerra jaurrean oso sustraituta zegoen gatazka soziala zen eta ondorioz, ezinezkoa zen gatazka hori dekretuz ezabatzea. Horregatik, hiriko agintean bandoak instituzionalizatzeko beharra onartu zenean bakarrik konpondu zen gatazka. 1543 eta 1551ko erabakien ondorioz, hiriko biztanleria bi leinutan bereizi zen –San Pedro eta San Pablo auzoak, neurri batean lehengo leinuen parekoak zirenak– eta udal-karguak bi leinuen artean banatu zituzten; horrela, bandoen behin betiko instituzionalizazioa eta Bilbo baketzea lortu zuten<sup>23</sup>.



TRISTAN DE LEGUIZAMON, BANDO BATEKO  
LEINU BATEN BURUA  
*Bilbao, arte e historia*

**Oharrak**

1. 1492 eta 1514ko sutegien datuak García de Cortázar, J.Á.ren lanetik hartutakoak dira: *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. Op. cit. 78 or. 1514ko sutegien zerrenda zehatzagoa ikusteko: Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 263-307 orr. Oineko oharra.
2. Ikus García Merino, L.V.: *La formación de una ciudad industrial...* Op. cit. 331 or.
3. Ikus García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. Op. cit. 79 or.
4. A.G.S.-R.G.S., 1485, IX, 136 or. Del Val, M.I.: "La sociedad urbana del Señorío de Vizcaya en la Baja Edad Media". *La ciudad hispánica durante los siglos XIII al XVI*. I. liburukia. Op. cit. 318 or.
5. Del Val, M.I.: "La sociedad urbana del Señorío de Vizcaya...". *La ciudad hispánica durante los siglos XIII al XVI*. I. liburukia. Op. cit. 319 or.
6. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 594-610 orr.
7. A.G.S.-R.G.S., 1497, VI, 292 or. Del Val, M.I.: "La sociedad urbana del Señorío de Vizcaya...". *La ciudad hispánica durante los siglos XIII al XVI*. I. liburukia. Op. cit. 324 or.
8. Iturriza, J.R.: *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Ángel Rodríguez Herrero-ren edizioa-Arturo liburutegia, Bilbo, 1967 (1. edizioa: 1812). I, 144 or.
9. Del Val, M.I.: "La sociedad urbana del Señorío de Vizcaya...". *La ciudad hispánica durante los siglos XIII al XVI*. I. liburukia. Op. cit. 325 or.
10. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. III. liburukia. Op. cit. 328 or.
11. García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. Op. cit. 429-432 orr.
12. 1475eko dokumentua González, T.k argitaratu zuen: *Colección de cédulas, Cartas Pueblas...* I. liburukia. Op. cit. 45-47 orr. 1490ekoa Suárez, L.k argitaratu zuen: *Documentos acerca de la expulsión de los judíos*. C.S.I.C. Valladolid, 1964. 344-346 orr.
13. Ikus Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. IV. liburukia. Op. cit. 30-50 orr.
14. Guiard, T.: *Historia de la noble villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 376-378 orr.
15. Andrés Morales, A. de: "Urbanismo y arquitectura en el Bilbao del siglo XVI". *Bilbao, arte e historia*. I. liburukia. Op. cit. 90 or.
16. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 594-610 orr.
17. González, T.: *Colección de cédulas, Cartas Pueblas...* I. liburukia. Op. cit. 105-106 orr.
18. Ikus Del Val, M.I.: "La sociedad urbana del señorío de Vizcaya...". *La ciudad hispánica durante los siglos XIII al XVI*. I. liburukia. Op. cit. 327-330 orr.
19. Guiard, T.: *Historia de la noble villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 255 or.
20. García de Cortázar, J.Á.: "Sociedad y poder en la Bilbao medieval". *Bilbao, arte e historia*. I. liburukia. Op. cit. 33 or. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 673-674 orr.
21. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 673-674 orr.
22. A.G.S., R.G.S., 1492, XI, 151 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. III. liburukia. Op. cit. 363 or.
23. Basas, M.: "La institucionalización de los bandos en la sociedad bilbaína y vizcaína al comienzo de la Edad Moderna". *La sociedad vasca rural y urbana en el marco de la crisis de los siglos XIV y XV*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1975. Passim.